



## Lasarte-Oriako DYAk 25 urte ospatuko ditu azaroaren 5-6an

1966an Bizkaian errepide-istripuetako zaurituak jasotzeko DYA sortu eta gero, Lasarte-Oriako taldea 1986ko abenduan antolatu zen. Geroztik 25 urte igaro dira eta bailarako ordezkaritzak, hainbat ospakizun pres-tatu ditu azaroaren 5 eta 6an urteurren hori ospatzeko. /4. orrialdea

## Euskaraz mintzatzeko lehen pausoak

“Erabileraren erronka”-n lau euskaldun berri udal euskaltegiko ikasleekin solasean

Lasarte-Oriako udal euskaltegiak 25 urte beteko ditu eta urteurren hori ospatzeko, “Erabileraren erronka” ekitaldi berezia antolatu zuten ostegun goizean. Lau euskaldun berri gonbidatu zituzten, Pablo Barrio alkatea, Boris Nogales euskara zinegotzia, Iñaki Petxarroman udal euskaltegiko ikasle ohi, kazetari, idazle eta bertsolaria eta Xabier Herrera udal euskaltegiko ikasle ohi, musikari eta egun Bigarren Hezkuntzako irakaslea.

Gonbidatuek banan-banan hitza hartzen joan ziren euren euskara ikasteko prozesua nola egin zuten azalduz. Guztien ahotan amankomuneko bi sentimendu, lotsa eta beldurra. Kalean euskaraz hitz egiteko lotsa eta hanka sartzearen beldurra. “Ikasketa prozesua ez da amaitzen, beti izango gara euskaldun berri baina euskaraz biziz, askoz errazagoa da”.

Ikaslearentzat hizkuntza



Xabier Herrera, Iñaki Petxarroman, Pablo Barrio eta Boris Nogales euskaltegian.

eguneroko bizitzan erabiltzea da erronka eta pausoa emateko momentua zein den “norberak erabaki behar du”; batzuek urteak behar dituzte, Pablo Barrio alkateak bezala eta beste batzuk, Iñaki Petxarroman adibide, lotsagabekeria euskalte-

giaren tranpolinetik buruz kale-rra botaz. Laurek egun euskaraz egiten dute bizitzako esparru gehienetan eta “harro” daude. Boris Nogales ikasle sentitzen da oraindik baina bere iritziz, euskaraz bizitzeagatik egindako ahaleginak merezi izan du.

Xabier Herrerak gogoratu zenez, euskaldun zaharekin euskaraz egiteak ematen zion beldurra “ez da hainbestekako, haiek ere gauzak gaizki esaten dituzte”. Petxarromanez bere esperientzia laburtzen duen bertsoa egin eta hala eman zioten bukaera ekitaldiari, Herrera gitarra jotzen eta ikasle, irakasle eta gonbidatuak batera habanera doinuan abesten.

**Euskalduntzeko tartea lasterra eta arina gehiago jakin ahala areagotu jakinmina gogoz gauditu ohi dira nekea eta ezina gogoia da ikasteko aliatuak handina euskara da herri honen bihotza eta arima euskara ikasi gabe ze frustrazio gordina ikasi eta gozatu nahiz iruditu ermutina euskaltegia delako euskararen tranpolina.**

## Maleta ipuinez beteta zekarren Pello Añorgak

Maleta magikoa iritsi zen haur liburutegira astear-teen. Ipuinez betetako poltsa-aren jabea Pello Añorga zen, ipuin kontalaria. Hau ireki eta primerako ordua igaro zuten bertara hurbildu ziren haurrek. Hainbat pertsonaia eta haien istorioak ezagutu zituzten, Lola eta bere gurasoei hondar-tzan itsasoko jenio gaiztoare-kin gertatutakoak, esate baterako. Adi entzun zituzten umeez Pelloren hitz eta gomendioak. Izu edo harridura aurpegi eta galdera ugari izan ziren ipuin kontaketen zehar, baita barre eta algarak ere. •



Haurrek adi jarraitu zituzten Pello Añorgak kontatutako ipuinak eta ederki parte hartu zuten, hala nola, putz egiten.

### ALBISTEA/3

LasarteOriaSarean weba aurkeztu du Udal Kultur Sailak

### ALBISTEA /5

Erromeri-dantzak eta baserriarren jantziak, bi ikastaro prest dira Ttakunen

### KIROLA /6

Ostadar futbol taldeak goian egon behar du Martija teknikoaren ustez

## JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.

### eraikuntzak



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Fatxada isolatzaileak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186

**Neure kabuz**



**Grezia-Lasarte**

Orain artean Grezia oporleku zen aldetik ezagutzen genuen. Zenbait lasartear izan da han eguraldi onaren, mediterranioko jateko eta batez ere gure zibilizazioaren jatorriaren peskizan. Aspaldian ordea, helenoak ekonomia arazoak dituzten neurrian dira albiste.

Eta zer du horrek zerikusirik gurekin, zer Lasarterekin. Ba, ezezkoan bazaude galdetu Joxe Ramoni. Panaderiko Juaniren semea da, datu gehiagorik ez dut emango hark izan duen arazo baten berri ematera noalako. Gurean diren eta ez diren banketxe guztietara joan da kreditu koskor baten eskean. Ustetan, ez zuen eragozpen haundirik eduki beharko 24.000 euro eskatu eta autoa erosteko. Baina, Joxe Ramoni ezezko borobila eman diote.

Aldekoak ditu baduela soldata bat nahiz aldi baterako kontratua izan, etxearen hipoteka zintzo ordaintzen duela hilero eta izen ona duela alde guztietan. Bere kontra ordea, guztiori kontra jarri zaiguna: susmagarri bihurtu garelako finantza etxeentzat.

Eta zergaitiak jakiten hasita, bankuko arduradunak garbi asko esango liguke... badakizu, Grezia...

Denok bihurtu gaituzte Greziako zordun. Bankeetxeek ez dute nolana ere dirurik uzten eta azken urteetan egoera atzekoz besterakoa izan denez... ez dugu erraz etsitzen.

Eta bien bitartean, Lukanikos, Atenasko manifestazio guztietan agertzen den txakur matxinoaren pausuk jarraitzen gabilta, hangoak gudan duen eragina ezagututa.

**Asier Odrizola**

**Zorion-agurrak**



**Mario**

Zorionak txapelduna! 7 muxu potolo, izeba, osaba, Ane eta Eneko-ren partetik.



**Oihanetxo**

Zorionak!!! Muxu handi bat etxekoan partetik. Oso ondo pasa zure egunean.



**Garazi**

Zorionak!!!! Mila eta hamairu muxu zure urtebetetzean etxekoan partetik.



**Ekain eta Lorea**

Zorionak eta muxu pila familiaren partetik.



**Leire**

Zorionak sorgina! Bederatzi muxu familiaren partetik



**Aitor**

Zorionak "artista"! Ederki pasako dugu gaur. Pa!



**Asier eta Andoni**

Zorionak bikote zuen zortzigarren urtebetzean! Famili guztia partetik.



**Haizea**

Zorionak "kukita"! Zure eguna polita izateko espero dugu. Muxu asko familiaren partetik.



**Paula**

Alex, aitona-amona eta gurasoen partetik zorionak opa dizkizugu



**Uxue**

Zorionak eta egun polita izan! Txokomarrubizko lau muxu goxo familiaren partetik.

**Osptaleetara doan autobusaren ordutegia**

Bidaiaren iraupena 15 minutuko da

Lanegunak	<b>Lasarte-Oriatik irteera</b> (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

- Bi logeladun pisu alokagai Lasarte erdian. Harremanetarako, 690 066 307.
- 70 metroko etxebizitza eguzkitua alokatzen da Uurbilen. Josune 649 424 826

**Lan-eskaintzak**

- Geriatrian laguntzailea: eskarmentua duen pertsona arduratsua adindu edo gaixoak zaintzeko edo garbiketa egiteko prest. Orduka, gauetan edo asteburuetan. Profesionaltasuna eta tratua ona eskaintzen du. Carlos (680-983527).

**Lan-eskariak**

- Laguntza klaseak ematen dira,

Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak...

Harremanetarako zenbakia, 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

• Neska euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Arduratsua eta esperientziaduna. Telf: 658 741 781 (Pili).

• Emakume eskaintzen da etxeko lanak edo pertsona zaharrak zaintzeko. Txostenekin. Harremanetarako, 648 526 080.

**Bestelakoak**

- Maila guztietarako klase partikularak ematen dira: matematika, fisika, kimika, lengoaia...
- Harremanetarako zenbakia: 943 372 709, 617 159 559, Ana.

**Oharra jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858



**Heriotzak**

- Fidel Jimenez Opazo, urriaren 19an, 69 urte zituela
- Teresa Arruti Urruzmendi, urriaren 15ean, 87 urte zituela.
- Silvio Suberviola Vergara, urriaren 15ean, 84 urte zituela.
- Simon Catarain Elorza, urriaren 14an, 84 urte zituela.
- M<sup>a</sup> Luisa Eugi Jaunsaras, urriaren 14an, 86 urte zituela.



**Jaiotzak**

- Jone Zubillaga Gonzalez, urriaren 18an.

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdia**

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

**Udala**

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 21**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Larunbata, 22**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Igandea, 23**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Astelehena, 24**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Astearte, 25**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteazkena, 26**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Osteguna, 27**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chucua, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Ana Sanz abokatua, Iñigo de la Paz Nasipa-ko ordezkaria, Nerea Sanchez zinegotzia, Juntxo Morcillo eta Miguel Angel Urroz notarioa.

DESKONTUAK

**Gasolina merkeagoa Aterpea-rekin**

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeako txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordainketa egiteko garaian, %2ko beherapena izango dutela gogoratu du merkatarien elkarteak. Aterpeak martxan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du helburu. •

KIROLA

**Igeriketako masterren entrenamenduak**

Buruntzaldea igeriketa taldeak lehen aldiz master taldea osatu du. Honetan hamasei kirolarik eman dute izena eta oraindik lekua legoke. Entrenamendu orduak dagoeneko ezarrita daude: 7:10etatik 8:10tara, 16:15etatik 17:15era eta 20:15etik 21:15etara astelehen, asteazken eta ostiraletan. Saioak herriko igerilekuan hasi dira eta ez da hilabete hau ordaindu beharko, proba modukoa izatea erabaki dutelako. Horrela izanda, interesa izan dezakeen edonork saiotan proba gisa parte hartu dezake. Informazioa eskatzeko, [www.buruntzaldeaik.blogspot.com](http://www.buruntzaldeaik.blogspot.com) web orrian, astelehenetik ostiralera entrenamendu orduetan azalduta edo arratsaldeko 18:00etatik 21:00ak bitartean igerilekuan Borjagatik galdetuta. •

BILKURA

**Odol emaileen bilkura Usurbilen**

Oria Beheko odol emaileen bilkura ospatuko da igandean, urriak 23, Usurbilen. Ospakizuna Salbatore elizako meza nagusiarekin hasiko da 12:00etan eta ondoren, 13:00etan Sutegi kultur etxeko areto nagusian diploma banaketa eta omenaldia egingo dira. Honetan 25, 40 eta 50 aldiz odola eman dutenei diploma banatuko zaie eta Merche Artola eta Jose de Anak odol emaile bikain izendapena jasoko dute. Bukatzeko bazkaria egingo da Atega jatetxean. •

IGERIKETA

**Estiloak lantzeko ikastaroak**

Buruntzaldea igeriketa taldeak estiloen irakaskuntzarako saio bereziak antolatu ditu. Hauek larunbatetan egingo dira, 11:45etatik 12:45tara eta bertan haurrei igeriketako oinarri eta estiloak irakatsiko zaizkie. Ikastaro hau, igeriketa egin edo probatu nahi dutenei eta taldean egoteko oraindik ahalmen tekniko nahikoa ez dutenei zuzenduta dago. 2002, 2001, 2000. urtean eta hortik behera jaiotakoentzat izango dira saioak. Hilabeteko kuota 15 eurokoa izango da eta interesatuek ahal bezain laster izena eman beharko dute plazak mugatuak direlako. Izena emateko baita informazio gehiago eskuratzeko, astelehenetik ostiralera igerilekuan Borjagatik galdetuta. Saioak azaroaren 5ean hasiko dira. •

POLITIKA

**PSEko idazkari nagusi berria da Zaballos**

Orain arte Lasarte-Oriako PSE-k Ana Urchuegia izan du alderdiaren herri batzordean idazkari nagusi. Urriaren 19an sozialistek egindako bilkuran, Jesus Zaballos idazkari nagusi izendatzea erabaki zuten. Honekin batera sozialisten herri batzordeko kide berriak izendatu ziren.

**Hitzartutako salneurria duten 72 etxebizitza zozketatu dira**

■ Udal gobernu sozialistak sinatutako hitzarmena betetze arren egin da zozketa ■ Etxeek hitzartutako salneurria dute, batz bestea 300.000 eurokoa ■ Hitzarmenak ez du Bilduren babesik

Astelehenean Lasarte-Oriako Udala eta Nasipa S.L.-ren arteko hirigintza hitzarmena betetze arren, hitzartutako salneurria duten 72 etxebizitzaren zozketa burutu zen kultur etxean.

Etxebizitza hauek AIU-34 Vaguada-Goiegin kokatzen dira eta bi eta hiru logelako multzotan banatu ziren, bi logelako 24 etxe eta hiru logelako 48. Guztira 182 eskatzailer ziren zozketa honetan zentzuzkoak zutenak. Hauek aurretik Nasipa S.L promotorekin harremanetan jarrita eman behar izan zuten izena.

**Baldintza bereziak**

Zozketa honek zenbait berezitasun izan zituen izan ere,, etxeen ezaugarriak eta prezioak ez dira babes ofizialeko etxeekin parekagarri, 300.000euro inguru ordainduko dituzte jabeek etxeengatik, garaje eta trastelekua barne eta sustapen pribatuko eraikinak dira.

Gobernu sozialista udalean zegoela, Nasipa enpresak herriko lur batzuk erosi eta etxe adosatutako egiteko proiektua martxan jarri zuen. Krisiak eztanda egin eta konstruktorek hasierako proiektua aldatzea erabaki zuen orduan. Horretarako udalarekin harremanetan jarri zen nolabait eraiki beharreko etxe eraikinak bideratzen laguntzeko.

Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Nasiparekin zenbait baldintza medio. Honen arabera Nasipak eraikitako etxebizitza hauek merkatu librean saldu beharrean, izena ematen zuten herritarren artean zozketa bidez banatzea adosten zen eta hauen prezioa babes ofizialeko etxe baten salneurriaren bikotza izatea. Horrela izanda, etxe hauek lehen zortzi urtetan ezingo dira merkatuko prezioan saldu, hau da soilik ordaindutakoa eskatu ahal izango dute jabeek. Epea gairiduta, nahi prezioan salduko dituzte.

**Bilduren babesik ez**

Nerea Sanchez zinegotzia izan zen udal ordezkari moduan zozketa gidatzen eta bere hitzetan horrelako hitzarmenek ez dute Bilduren babesik "horrelakoek ez dute herriko etxebizitzaren prezioaren espekulazioarekin amaitzen, jakina denez gure helburua alokairu soziala sustatzea da." Dena den, aurretik sozialistek sinatutakoekin aurrera egin behar dutela azpimarratu zuen zinegotziak eta mota honetako beste hitzarmen batengatik horrelako beste zozketa bat egin beharko dutela aurreratu zuen.

Zozketaren emaitzak kultur etxean jarri ziren egunean bertan eta Udaltxeko zein Nasiparen webgunean kontsultatu daitezke. Ondorengo tramite guztiak, promotorekin kudeatu beharko direla jakitera eman zuten zozketa gidatu zutenek. •

**LasarteOriaSarean weba aurkeztu da**



Boris Nogales Kultura saileko lehendakaria web orrialde berriaren aurkezpenaren.

Lasarte-Oriako Kultura sailak web orrialde berria, LasarteOriaSarean, jarri du martxan. Asteazkenean orrialde honen aurkezpena egin zen kultur etxean.

Boris Nogales kultura sailleko lehendakariak azaldu zuenez, [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu) orrialdea Udalaren orrialdearen osagarria da.

"Orrialde honetan Udaleko departamentuek edo herriko elkarteek antolatzen dituzten jai, ekitaldi edo egitarauak egongo dira herritar

guztiak, zein elkarteek erretan berri izan dezaten" adierazi zuen.

Era berean, webaren gas-tua urtero 200 eurokoa izango dela jakin arazi zuen, "kultura eta gazteria sailetako langileek berak egindako lana da eta haiek mantenduko dute".

**Sare sozialak**

Proiektu berri honen helburua modu azkar eta motzean ekintzen berri ematea da.

Horregatik, LasarteOriaSarean orrialdeak Facebook edo

Twitter bezalako sare sozialetan bere tartea duela azpimarratu zuen Kulturako buruak.

Honetaz gain, LasarteOriaSarean web-a Kulturize plataformako kide denez, laster Android eta iPhone mugikorretan orrialdeko egitaraua ikusi ahal delako ere jakin arazi zuen.

Bestalde, sarrerak on-line kudeatzeko Donostiako enpresa batekin harremanetan dardela aurreratu zuen, "zerbitzu honek ez du gainkargarik izango erabiltzaileentzat". •



# Lasarte-Oriako DYAren 25. urteurrena

■ Ekintza eta ospakizun ugari antolatu dituzte azaroaren 5 eta 6an     ■ Bazkide eta bazkide ohiak bazkarian elkartuko dira     ■ Azaroaren 7an hasiko da lehen sorospentako ikastaroa

Joan Antonio Usparitza ginekologoak sortu zuen Bizkaian DYA 1966ko urtarrilean errepidean gertatzen ziren istripue-tako zaurituak jasotzeko modu antolaturik ez zegoela ohartuta. Lasarte-Orian 1986ko abenduan sortu zen taldea. Geroztik 25 urte igaro dira eta bailarako ordezkariak, Oria Beheko DYAk bere urteurrena ospatuko du azaroaren 5 eta 6an.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oria bideen sarean puntu garrantzitsua da eta hainbat errepideren bidegurutzeta, autopista, N-1, N634a... Arestian hauetan istripu kopuru handia zela eta herrian laguntza talde bat sortzeko premia ikusi zen. Gazte talde bat bildu eta Hernaniko DYAren laguntzaz, 1986ko abenduan sortu zen gure herriko ordezkariak, orain Oria Beheko DYA bezala ezagutzen dena.

Hilabete batzuk geroago, uztailan, sartu zen Joxe Luis Artola, Joxepo, erakundearen eta egun Gipuzkoako eta Estatuko DYAren lehendakaria da. Berarekin bildu gara elkartearen lehenengo pausua ezagutu eta garapenari buruz hitz egiteko.

## Ezer gabe

“Lehen delegatua Nekane Larzabal izan zenean, hasieran, anbulantziarik gabe, ordezkariarik gabe, ezer gabe zeuden. Zarautz, Azpeitia eta Hernaniko laguntza izan zuten” adierazi du Artolak.

Orduan, Kuttun, Zumaburu gozo-dendako jabeak, Begoña Santamariak, lokala utzi zion elkarteari haren lantegi azpian.

## Garapena

Anbulantziari dagokionez, batzuetan Azpeitikoek eta besteetan Zarautzekodek utzitakoa erabiltzen zutela gogoratzen du Artolak. “Gero 1987ko urrian lehenengo anbulantzia lortu genuen, Mercedes bat. Arranbiden urte batzuk egin genituen, baita Goiko kalen ere. Egun Usurbilgo Udalak utzitako lokal batean gaudu” dio DYAko lehendakariak.

Lasarte-Oriako aurreneko taldea txikia zela jakin arazi



Oria Beheko DYAk bere 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu azaroaren 6an Okendo plazan, hala nola, erreskate-simulazioa egin edo okela txikia erreko du.

digu, “12 edo 14 pertsona. Gerora 1987ko udaran 20 pertsona geunden.”

Egun 50 bat lagun ari dira lanean Oria Beheko ordezkarietan. “Donostiakoa izan ezik bailara honetakoa da jende gehien duen Gipuzkoako ordezkariak” azpimarratu du.

Honetaz gain, azpiegituri dagokionez ere garapen handia izan dutela aipatu du, “baliabide oso gutxi zeuden, ekonomikoki ere ez zebilen ondo, baina ilusioa zegoen.”

Joxe Luisek gogora dakarenez, “lorpen handia izan

zen guretzat Mercedes a izateak”. Orain baliabide hobea goak dituztela adierazi digu, “bi anbulantzia sendagiledu-nak eta mendiko erreskateko taldea, besteak beste”.

## Zerbitzu gehiago

Joxe Luisek nabarmetzen duenez, gauzak asko aldatu dira. “Lehen urgentziak egiten genituen bakarrik, Osakidetza bere anbulantziak jarri zituenetik beste zerbitzuak egiten ditugu.”

Honela, gure bailaran DYAk prebentzio-zerbitzuak eta ikastaroak garatzen ditu,

ongizate saila, mendiko erreskate taldea, ... “Beharrenean arabera moldatu behar izan gara, eta moldatu ditugu elkartearen helburua eta formazioa ere” esan digu.

Eta, hau guztia, Gipuzkoarren eskuzabaltasunari esker lortu dutela azpimarratu du.

## Ikastaroa Lasarte-Orian

Arestian aipatu legez, ikastaroerri garrantzia ematen die elkarteak eta horregatik, sorospentako ikastaroak eskaintzen ditu herriz herri.

Gauzak honela, Artolak, Lasarte-Orian azaroaren 7an

lehen sorospentako ikastaro bat hasiko dela jakin arazi digu.

Hiru asteko iraupena izango du, 7tik 25era, astelehene-tik ostiralera arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara Atso-bakarren dagoen Landaberri Garaikoetxea ikastetxean eta herritar guztiei irekita dago.

Ikastaroan parte hartzeko ez da aurretik ezagupenik izan behar, zerotik hasiko da beraz, eta batez ere egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei erantzuteko moduak erakutsiko dira, esaterako, bihotz eta birika susperketa, zauriak, erredurak...

DYAko antolatzaileek adierazi dutenez, “ezagupen oso arruntak dira baina laguntza handia eman dezaketena”, eta oso modu eroso eta atseginean erakusten dira, alde teoriko eta praktikoak jorratuz.

Ikastaro amaierako frogak gaitzintzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du eta Euskal Herriko Unibertsitateko bi kreditu eskuratzeko ere bai.

Ikasle kopurua mugatua da ikastaroaren kalitatea ziurtatzeko, eta matrikula egiteko 100 euro ordaindu behar dira, ikastarorako txostena barne delarik. Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 464 622 telefono zenbakira. •

## 25. urteurreneko ospakizunak

Oria Beheko DYA ordezkariak azaroaren 5ean eta 6an ospatuko ditu bere zilarrezko ezteiak eta hainbat ekintza antolatu ditu asteburu horretarako.

### Bazkaria

Larunbatean, azaroaren 5ean, ordezkariak bazkide eta bazkide-ohiekin bazkaria egingo dute Dana-Ona jatetxean.

“Egun goxoa izatea nahi dugu, oroitzapenez betetako. Horregatik, gonbidapena luzatu nahi diet bazkide

eta bazkide ohi guztiei” adierazi du Joxe Luis Artolak.

Bazkarian izena emateko DYAren 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu behar da.

### Ospakizunak

Bestalde, igandean, azaroaren 6an, festa handia antolatu dute Okendo plazan.

Joxe Luisek DYAk dituen baliabideak erakutsiko dituela aurreratu du. Honetaz gain, rokodromo, sorospentaren inguruko antzerki bat, umeentzako tailerrak, formazio karpa txikia, etab. egon-

go dira herritarrek DYAri eta lehen sorospentari buruz gehiago ikas dezaten.

### Okela Eguna berreskuratu

Gainera, txekor txikia erreko dute. “Duela urte batzuk, Lasarte-Orian Euskal Okela eguna antolatzen genuen elkarterako dirua eskuratzeko eta urteurrenean egitea pentsatu genuen” jakin arazi du.

Etorkizunean ekimenari jarraipena eman nahi diotela ere aurreratu du, “Okela eguna berreskuratu nahi dugu berriro”. •

# Baserritarrez dotore jantzeko ikastaroa

■ Josten ikasteko aukera eskaintzen du Ttakunek azaroan zehar ■ Norberak bere euskal jantzi tradizionala egiten ikasiko du ■ Beste ikastaro bati esker erromeriatako dantzak ikasi daitezke

Josten ikasteko ikastaroa antolatu du Ttakunek azaroan: giro onean, 10-12 lagunek, Euskal jantzi tradizionalak nolakoak diren ikasi eta gero nahi duenak berea egiteko aukera izango du aldi berean euskara praktikatzu. Gainera dantzaldi eta erromeriatan dantzatzeko diren piezak ikasteko aukera eskaintzen du aurten bigarren aldiz Ttakunek. Dantzan ez dakitelako begira egoten direnei erakutsiko dizkie David Egizabalek dantzarik ezagunenak.

Jon ALTUNA

Aurreko urteetan bezala, Euskal jantzi tradizional dotorea norberak josi, egin eta jantzeko aukera izango da Lasarte-Orian Ttakun Kultur elkarteari esker. Azken urteotako arrakasta kontutan izanik, aurten ere zortzi saiotako ikastaroa emango du Jone Artola irakasleak. Izena ematen dutenek, neurriak hartu eta oihalak mozten ikasteaz gain, josteko makina erabiltzeko aukera izango dute irakaslearen laguntzarekin.

Jostungintza ikastaroak duela lau urte hasi ziren Ttakunen eta erantzun ona izan dute. Aurreko urteetan jantzi dotorea josteaz gain, bainikaz apaindutako mantala edo soinekoak egin zituzten. Aurten soilik baserritar arropak egingo dira, gero Santo Tomas egunean, eguberritan edo Santa Ageda egunean jantzeko.

Ttakunek hainbat ikastaro antolatzen ditu euskararen erabilera bultzatzeko eta lagunarteko giro onean jardun ezberdinak ikasteko. Azaroaren 3tik 29ra bitartean jostungintzari buruzko zortzi saio burutuko dira, astean bi egunetan, astearte eta ostegunetan, 15:00etatik 17:00etara bitartean.


Ikastaroa Ttakunek Erribera kalean duen lokal zaharrean egingo da eta bertan dauden josteko makinak erabiliko dira. Interesatuak izena emateko edota dituzten zalantzak argitzeko Ttakunera 943 37 14 48 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Izena emateko epea hilaren 28ra arte dago zabalik, baina kontutan izan behar da ikastaroko partaideen kopurua mugatua dela, 10-12 lagunentzat tokia da. 22 euro ordaindu behar dira, eta Ttakuneko bazkideek 20 ordainduko dituzte. Gainera, jantzia egiteko materiala ere eraman beharko dute, oihalak, orratzak, botoiak, eta abar, norberak bere gustuko kolore eta erara egiteko.

Euskal dantza jantzia nolako den ikusteko liburuxka bat kaleratu zuen Ttakunek 2007an eta jantzi tradizional horietan oinarrituta egiten dituzte ikastaroan parte hartzen duten jostunek euren jantzi bereziak, gainera sos batzuek aurrez eta norberari egokitutako eta norberaren gustuko jantzia egingez.

## Dantza ikastaroa

Ttakun Elkarteak, bestalde, Muxikoako ikastaroa jarriko du abian laster eta izena emateko epea ireki du. Herritar asko izaten da, dantza egin



Iturria: www.euskonews.com, Ane Albisu / 2005-09-09

Baserritar jantzia josten eta erromeriatako dantzak ikasteko bi ikastaro antolatu ditu Ttakun elkarteak.

nahi bai baina ez dakielako alboan begira eta hori ikusita iaz antolatu zuen lehenengo aldiz Ttakunek ikastaroa. Jada ez da garai batean bezala igandero herriko plazan dantzaldirik antolatzen, eta ez da lehen bezala dantzaldi horietan dantzan ikasten. Beraz, urtean zehar diren jai egun edo feste ezberdinetan dantza

egitera bultzatzeko antolatu du Ttakunek ikastaroa David Egizabalen eskutik.

Ikastaroa udazkenean burutuko da eta erromerietan dantzatzeko diren piezak erakutsiko dira. Ikastaro hau ere euskaraz emango da Ttakunen helburua iharduera ezberdinak egin, ikasi eta lagunartean ondo pasatzea

euskararen erabilera bultzatzea baita.

Adin edo maila mugarik ez duen ikastaroa izango da, eta gainera ikasleek nahi eta gogotara egokituko dena. Ikasleen erritmo eta eskakizunetara moldatuko direla adierazi dute antolatzaileek. "Helburu nagusia dantzan ikasiz ondo pasatzea izango da, euskaraz". •



**Bide heziketa ibilbide arrakastatsua.** 200 haurrek parte hartu zuten Urbil-eko aparkalekuan prestatutako zirkuituan. Bide heziketa helburu, jendetza hubildu zen Michelin enpresak bigarren urtez antolatutako ekimenara. Urritasun psikikoa duten zenbait ume bertan izan ziren eta hauek Josune Bereziartu eta Richard Oribe kirolarien laguntza izan zuten. •





Mikel Martija eta Asier Gorostegi Erregional Goreneko entrenatzaile eta laguntzailea

# “Ostadarrek lehenengoa izan behar du”

■ Erregional Goreneko talde tekniko berria ez da faborito izatearen beldur ■ Igoera ez da helburu nagusia ■ Norgehiagoka guztiak irabazi dituzte, Beti Ona taldearen aurkakoa izan ezik

Ostadar S.K.T.-ko Erregional Goreneko taldean aldaketa garrantzitsua egon da. Joxean Beldarrainek taldeko entrenatzaile izateari utzi eta egun talde tekniko berri eta gaztea dago kirol elkarteko lehenengo taldean gogor lanean.

Nerea EIZAGIRRE

Erregional Goreneko entrenatzaile berria Mikel Martija da; Asier Gorostegi eta Asier Munduate, aldiz, bere laguntzaileak. Martija eta Gorostegitekin bildu gara taldearen asmoiei buruz gehiago jakiteko.

**Mikel, nolatan erabaki zenuen entrenatzaile postua hartzea?**

**Mikel.-** Nik sei denboraldi daramazkit entrenatzen Ostadarren. Ez dakit egiten dudana lanarengatik, edo nire profila ondo zetorrela ikusi dute. Etxeko pertsona bat, jendea ezagutzen duena, filosofia...

Nik hasiera batean ez nuen ikusten, azkenean ehuneko handia nire koadrilako jendea da.

Baina hori kontrako gauza bezala ikusi beharrean aldeko bezala hartu nuen. Lagunarteko giro hori ona izan ahal zela uste nuen.

**Baina erronka handia izango da zuretzat zure adineko jendea zuzentzea?**

**M.-** Jendeak galdetzen du, “eta kasurik egiten al dizute?” Kasu egiten didate eta batzuetan gehiegi, ez dute ezer esaten, nahiz eta ni oker egon. Izotza puskatzea falta zaie.

Gainera koadrilakoak ez direnak edo ezagunak ez direnak, nik entrenatu ditut kadeteetan edo jubeniletan.

Izan ere, jokalariekin beti izan dut adin tarte txikia. Ni kadeteetan entrenatzaile lanean hasi nintzenean, jubeniletan jokatzeko nintzen. Beti hiru edo lau urteko diferentzia izan da, ia ez da ezer entrenatzaile moduan.

Eta horrek gauzak asko kontrolatzea ekartzen zuen, gauzak ongi egin, jokalariek beti zuregan sinestea eta horrek lana ematen du.

Orain askoz gehiago, batzuk ni baino zaharragoak direlako.



Mikel Martija entrenatzailea, eskubiko lehenengoa, Erregional Goreneko jokalariei eta talde teknikoarekin. Asier Gorostegi, ezkerretik hasita lehenengoa da aurreko ilaran.

**Talde tekniko guztia aldatu duzu, ezta?**

**M.-** Entrenatzaile lanetan beti aritu naiz Iban Manzanorekin, baina Bartzelonan dago.

Iaz Asier Gorostegiren aukera tanteatu nuen jubeniletan aritzeko baina ez zen gehiagora iritsi. Aurten aukera ikusi bezain pronto deitu nion. Bera nolakoa den jakinda aukera ona zela uste nuelako. Izan ere, duen inplikazio oso interesgarria da.

Asier Munduateren kasua bestelakoa da. Atezainek entrenatzaile espezifikoak izatea eta ongi prestatuak egotea gustuko izan dut beti. Ez genuen argi ikusten pertsona hori. Baina Munduren dispozizioa eta gogoek bera aukeratzea ekarri zuten.

**Maila desberdinetan entrenatzaile lanetan egon izanak esperientzia ematen du?**

**M.-** Zenbat eta maila handiagoa gehiago ikasten duzu eta hiru hilabete hauetan gauza asko ikasi ditut.

Gehiago pentsatu behar duzu. Emaizak aztertu eta taldean kalitatea badago, zer egin erabaki behar duzu.

Gainera, talde erreferentia da herrian eta gu ikustera datoren jendeari zerbait eskaintzea ongi dator.

Honela, eskaera maila handiagoa, bideo gehiago ikusi, partidak gehiago aztertu, informazio gehiago jasotzen duzue... guztia aurrera eramateko.

**Jokalarri berririk ba al dago taldean?**

**M.-** Ostadarrera bueltatu dira Asier Paniagua eta Iñigo Gon-

zalez. Azken hau Antiguokotik dator eta bere ezaugarriengatik jokalarri interesgarria da.

**Asier.-** Ostadarretik joan zen Antiguokora. Bestalde, Iñigo Vila iaz bueltatu zen, baina lesionatua. Osatu egin da eta jokalarri bat berreskuratu dugu.

**M.-** Baja batzuk egon dira, baina ez dago jokalarri aldaketa gehiagorik.

**Nola joan zitzaizuen aurre-denboraldia?**

**M.-** Sentsazio onak izan genituen. Baina gogorra izan zen emaitzetan batik bat.

**A.-** Aurre-denboraldian jokatu-tako partidatan, jubenil bat izan ezik, beste taldeak maila altuagoak ziren.

**M.-** Goletan tarte handia bazegoen ere, partidak aztertuz, ongi jokatu genuen. Emaizak ez genituen kontuan izan nahi, gure jokoa eta profila mantendu nahi genuen.

Gure apostua baloiaren jabetza guk izatea da. Amaierara arte eraman nahi dugu partida eta gainera emaitzak laguntzen badu hobe.

**Ongi hasi zenuten denboraldia, lau partida irabazi, baina duela bi aste Beti Onaren aurka galdu zenuten...**

**M.-** Aurreko urteekin konparatuz, aldeko gol kopurua onan zen, baina aurkakoa handia.

**A.-** Eta ongi hasi ginela zirur-

dien, baina hurrengo partidatan arazoak izan genituen.

**M.-** Defentsiboki taldeak ez du sofitzen. Baina akats puntualek aurkaria hiru alditan iristea dakarte eta hiruretan gola egitea. Eta nahiz eta zu gehiagotan iritsi, ez duzu golik sartzen.

Hau arazo txikia baina larria da. Zuzentzen saiatuko gara eta denboraldiak markatuko digu zer egin. Helburua gertu badugu jarraituko dugu eta urruntzen bada eta lehentasuna hau dela ulertzen badugu, aldatuko dugu.

**Eta aipatzen duzun helburu hori igotzea da?**

**M.-** Guk ulertzen dugu taldeak duen mailagatik goiko postuetan egon behar duela. Baina klubetik ez digute igotzea gure helburu nagusia dela esaten.

Talde barruko proposamenetan helburu batzuk zehaztu ditugu, egiten dugun lanak helmuga bat izan behar du eta igotzeko aukera izan daiteke. Baina berebizikoak dira jokalarriak gustura egotea, entrenamendu onak egitea, jendeak parte hartu nahi izatea, etab.

**Eta ez al duzue presioa nabaritzen?**

**M.-** Azken bi urteetan taldea goiko postuetan ibili da. Duela bi urte, gutxiengatik ez zen igo. Gainera, nabari da jendeak talde hau goiko mailan egotea nahi duela.

**A.-** Presio hori badago. Gainera, entrenatzaile berria da eta ni bere laguntzailea. Bi gazte ikusten dituzte eta “ea zer egiten duten” pentsatu. Gure gain dago gauzak ongi ateratzea, ze gaizki badoaz, jendeak arrazoiren bat bilatuko du, “gazteak ziren, normala da”.

Baina hasiera ona izan da eta lagundu du.

**M.-** Jokalarrien konprometua, nahia eta portaera ere oso garrantzitsua izan da. Jokalariek gogo eta kalitatea badute gauzak ateratzeko zailtasunik ez dago, oinarria jarritako dago. Gero guk dauzkagun gogo eta ideiekin asmatzen badugu, fruituak izango ditugu.

**Zeintzuk dira Ostadarrekin lehiari egongo diren taldeak?**

**M.-** Zaila da denboraldi hasiera honetan zerbait esatea. Ostadar talde erreferentia da. Hirugarren izan zen iaz eta goiko bi taldeak mailaz igo ziren. Goitik ez da inor jaitsi. Kinielen arabera, lehenengoa izan beharko luke eta horrek ez digu beldurrik ematen.

Beti Ona, Mundarro eta Touring gurekin lehiari egongo direla uste dugu.

Oraintxe sailkapeneko lehenengo postuan dago Mundarro. Hasiera ona egin du.

**A.-** Seitik sei irabazi dituzte. Baina ez dakigu noiz arte mantendu ahalko duen maila hori.

**M.-** Beti Onak aldiz sentsazio ona eman zigun. Talde lotua eta ideia argiak dituen da.

Beste talde garrantzitsua Touring izan daiteke. Baina hasiera kaxkarrak izan dute, baina buelta eman ahal diotela ziurra da. •

*Zenbat eta maila handiagoko gehiago ikasten duzu eta hiru hilabete hauetan gauza asko ikasi ditut*

## Egunero

### Erakusketa

DIEGO LETAMENDIA BELZUNCEREN erakusketa zabalik da urriaren zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN

## Ostirala, 21

### Kontzertua

PSICOACUSTIC bakarlariaren *The Beatles* bertsioen emanaldia, Xpression! elkarte eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Saialk sinatutako hitzarmenean barruan. KULTURETXEKO KAFETEGIAN, **20:00etan**



## Igandea, 23

### Zinea

"CARS 2" pelikula eskainiko dute, haurrentzako zinema atalean. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan**, GAZTELANIAZ. **Sarrera, 3,30 euro.**



## Gizakien mugak ezagutzen

MARIE DE JONGH konpainiak ROBOT MAITEA haurrentzako antzerkia eskainiko du. itxura batean zorionsu bizi diren bi giza itxuradun roboten historia kontatzen du. Hasieran dana ondo doa eta agian horrela jarraituko nahi izango lukete betirako, baina haietako bat huts egiten hasten da eta dena aldatzen da.

LARUNBATA, URRIAK 22

18:00ETAN

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN

SARRERA, 3,30 EURO

## Eskutitza

### Gernikako Itunarekiko atxikimendua

Ezker Batutik ateratzea erabaki eta gero, euskal ezkerreko indar guztiak fronte zabal eta askotariko batean biltzea helburu dugun talde independente gisa gure ibilbidea hasteko egoki iruditu zaigu Gernikako Itunarekiko gure atxikimendua eta konpromisoa adieraztea, indarkeriarik gabeko egoera eta normalizazio politikorako (ETAk borroka armatua behin-betiko uzteko erabakia iragaritzea, ezker abertzalearen legalizazioa, presoan dagoen disertsio politikarekin bukatzea, ...), gatazka politikoa konpontze aldera - Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearen onarpenetik abiatuta- eragile politiko, sindikal eta sozial guztien

arteko negoziatorako, eta biktima guztiekiko aitortza, adiskidetzeta eta errepaziorako balioz-ko bidai orritzat jotzen baitugu.

Beraz, Itunaren postulatua geure eginez, postulatu hauek betetzeko eta euskal gizarteak ere bere egin ditzan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Ildo beretik, urriaren 22rako "Euskal Herriak konponbidea nahi du" lemapean, pakearen, normalizazio politikorekin eta giza eskubide guztien errespetorekin aldeko manifestaziorako deiarekin bat egiten dugu.

**ERABAKI kolektiboko Lasarte-Oriako kideak**

## Liburutegiko ordutegia



Astelehenerdik ostiralera 10:00 - 13:00 eta arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18  
Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

Fmko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

## Oharrak

**Maria Auxiliadoraren meza**  
Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urriaren 24a, astelehena, arratsaldeko 17:30ean.

### 1962. urtean jaiotako enafaria

1962. urtean jaiotako lasarteartarrentzat afari bat antolatuko dugu azaroaren 12rako, Dakara jatetxean. Interesatuek 50 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren 5erako, honako kontu korronte zenbakian, 3035 0036 12 0360082971. Argibide gehiagorako, deitu: 646 274 376 (Bea) / 659 950363 (Rexu). Anima zaitetz!

**Etexeraten elkarretaratzea**  
Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etexeraten kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

**Udako Txokoetako irudiak**  
Txokoetan ibili direnen haur guztiak eskuragarri ditzuzte Txokoetako irudien CDak. Hauek jasotzeko Ola kalea 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar da 17:00etatik 20:00etara azaroaren 25a arte.

**Oharrak jartzeko:**  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintzarri@txintzarri.info

## Kiroletako agenda

### FUTBOLA

#### Larunbata 22

**10:30ean**, Ostadar-Kostkas M. B. (Infantilen Ohorezko Maila) Michelinen.  
**14:30ean**, Ostadar-Texas Lasartearra (I. Kadetea) Michelinen.  
**16:00etan**, Texas Lasartearra-Ontzerri (I. Erregionala) Michelinen.  
**17:45ean**, Ostadar-Kostkas M. B. (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.



**10:30ean**, Hernani-Ostadar (Infantil txikiak) Zubipe, Hernanin.  
**12:00etan**, Zarautz-Ostadar (I. Erregionala) Asti-Txiki, Zarautzen.  
**12:00etan**, Kostkas M. B.-Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Matigoxotegi, Donostian.  
**17:30ean**, Sanpedrotarrak-Ostadar (Erregionala Goren) Txintxer, Txintxerpen.  
**18:15ean**, Orioko-Ostadar (Emakumezkoen Erregionala) Mendibeltz, Orion.

#### Igandea 23

**10:30ean**, Texas Lasartearra-Kostkas M. B. (I. Jubenila) Michelinen.

**12:00etan**, Usurbil-Ostadar (Alebinak) Altamira, Ordizian.

### ARETO FUTBOLA

#### Ostirala 21

**HERRIKO TXAPELKETA**  
**19:30an**, Buenetxea-Dakara  
**20:30ean**, Trumoi-El Punto

#### Larunbata 22

**17:30ean**, ISU Leihok-Kukuia Etxebarri (Euskal Liga) Kirolegian.



### HERRIKO TXAPELKETA

**09:10ean**, Izkiña-Naiban  
**10:10ean**, Ilargi-Ayete  
**11:10ean**, Viña del Mar-Izarra  
**12:10ean**, Txindoki-Oria kristaldegia  
**13:10ean**, Indaux-El Bar de Mau

**18:15ean**, Soloarte-Buruntza K.T. Aldaz H.K. (Nazional B mailan) Artunduaga kirolegia, Basaurin.

#### Igandea 23

**HERRIKO TXAPELKETA**  
**10:00etan**, Balardi Harategiak-Los Tiburones Rojos  
**11:00etan**, ISU Leihoko-Illum

### PILOTA

#### Ostirala 21

**17:30ean**, Ziozta I-Intza I (Eskuz banaka, 2. urteko alebinak) Intxaur, Zizurkilen.

#### Larunbata 22

**16:00etan**, Intza 2-Gazteleku I (Eskuz banaka, 2. urteko alebinak) Loidi-Barrengo pilotalekuan.  
**16:00etan**, Intza 2-Antigua (Eskuz banaka, 1. urteko infantilak) Loidi-Barrengo pilotalekuan.  
**16:00etan**, Intza 3-Añorga (Eskuz banaka, 1. urteko infantilak) Loidi-Barrengo pilotalekuan.  
**16:00etan**, Intza 2-Usurbil I (Eskuz banaka, 2. urteko infantilak) Loidi-Barrengo pilotalekuan.

**16:00etan**, Intza-Zestoa (Eskuz banaka, III. mailako seniorra) Loidi-Barrengo pilotalekuan.



**16:00etan**, Hernani 4-Intza I (Eskuz banaka, 1. urteko infantilak) Hernanin.  
**16:00etan**, Zestoa I-Intza I (Eskuz banaka, 2. urteko infantilak) Zestoa.

### ATLETISMOA

#### Igandea 23

**11:00etan**, herriko hainbat korrikalari Donibane Lohitzune-Hondarribi maratoi erdian parte hartuko dute,

### DUATLOIA

#### Larunbata 22

**16:00etan**, herriko hainbat duatletak Zumarraga-Urretxu Superspring duatloi herrikoian parte hartuko dute, Zumarragan.

# Hiru herritar Gpuntuako final laurdenetan

- Zarautz eta Oiartzunekin batera Lasarte-Oria da Txapelketan ordezkari gehiena dituen
- Andoni Otamendik igandean kantatuko du Villabonako Olaederran arratsaldeko 17:30etan

Larunbatean hasiko da Oñatin Gpuntua, Gipuzkoako Bertsolarien txapelketako hurrengo fasea. Final laurdenetarako 30 bertsolari sailkatu dira, horietatik 3 lasarteoriatarrek, eta 18 pasatuko dira final-erdietara. Lorpen handia litzateke, Andoni Otamendi, Unai Muñoa eta Ane Labakarentzat final-erdietara iristea, baina txartela oholtzan lortu beharko dute. Otamendik igandean kantatuko du Villabonako Olaederra kiroldegian arratsaldeko 17:30etan, Beñat eta Unai Gaztelumendi, Lizarralde, Unai Agirre eta Mantxirekin. Labaka eta Muñoak Azpeitian kantatuko dute Izarraitz pilotalekuan azken final-laurdenean, azaroaren 6an 17:30etan. Beraz, kantatu eta segituan jakingo dute aurrera egingo duten ala ez, aurreko faseko egonezin eta estuasunik gabe.

Jon ALTUNA IZA

Zarautz eta Oiartzun dira, Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketako final-laurdenetan ordezkari gehien dituzten herriak. Lau dira zarautzarrak, Mantxi, Felix Zubia, Nahikari Gabilondo eta Oier Aizpuru. Ainhoa Agirreazaldegia elgetarra ere bertan bizi da aspaldion.

Oiartzungoak dira Gpuntuaren aurrera egin duten bertsolarietatik beste lau, Ander Lizarralde, Xamoa, Jon eta Alaia Martin anai arrebak. Lasarte-oriatarrek hiru dira, Andoni Otamendi, Unai Muñoa eta Ane Labaka, eta aurrera egin dute Lasarteko bertsu eskolan diharduten edo berarekin lotura estua duten Amaia Agirre eta Unai Gaztelumendik ere. Hauek Hernaniko bertsu eskolan ibiliak dira eta Hernanik ere ordezkari mordoska ditu, Iñaki Zelaia eta Unai Agirre bertakoak, JexuxMari Irazu, Añorgako gaztelumenditarrek, Astigarragako Agin Rezola,...

Gpuntua txapelketako final-erdiak bihar larunbate

hasiko dira Oñatin. 30 bertsolaritik 18 sailkatuko dira final-aurrekoetara eta beraz 12 geldituko dira kanpoan. Bihar, Beñat Lizaso, Agin, Iban Urdangarin, Iñaki Gurrutxaga, Zelaia eta Irazuk kantatuko dute eta igandean Villabonan, Andoni Otamendirekin batera, Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiek, Lizarralde, Unai Agirrek eta Mantxi.

## Neska-mutilak

Hondarribi eta Idiazabalgo saioetan, urriaren 29 eta 30ean, sexu parekotasuna izango da, hiru gizonetako eta hiru emakumezko izango dira kanporaketa bakoitzean, Amaia Agirre, Alaia Martin, Nahikari, Aitor Sarriegi, Kazabal eta Iñigo Eizagirre Hondarribin eta Nerea Elustondo, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia, Zubia, Aizpuru eta Jon Martin, Idiazabalen.

Azken saioa Azpeitian izango da azaroaren 6an arratsaldeko 17:30etan eta erabakiorra izateaz gain interesgarria dirudi bertan izango direlako Ane Labaka eta Unai Muñoarekin batera



Andoni Otamendik Villabonako kiroldegian kantatuko du igandean 17:30etan.


"etxean" kantatuko duen Jokin Uranga, Iker Zubeldia, Iñaki Apalategi eta Xamoa.

## Final-laurdenetako lanak

Final-laurdenetan 12 bertsu eta 6 koplak kantatu beharko dituzte bertsolariek, binaka gaia emanda kasu gehienetan: 6 puntuko motzean hiruna bertsu, hiru puntuko seina koplak, (30 puntu) eta zortzi-

ko handian beste hiruna bertsu; gero bakarka, nahi den doinu eta neurrian hiruna bertsu eta kartzela binaka gaia emanda eta hamarreko txikian hiruna bertsu.

Aurten ere finala Ilunben egingo da, Donostian, abenduaren 18an eta baina aurretik Arrasate, Tolosa eta Hernanin jokatu dira final-erdiak. •



## Gpuntua ikasgai

Frustrazioa zaila eta gogorra egiten zait, ezinaren mina, alegia. Txapelketak lehia dakarkit, lehiak alderaketa eta alderatzeak mailakatzeko: gehiago edo gutxiago nauk! Horrela, horren arabera prezioa/presioa jartzen diot nire buruari.

Lehiaren aurrean nola, bizitzaren menean hala. Harrokeritik, "mekauen dioska" bada ere, iritsi izan naiz helburuak lortzera, amorratuta bukatu dut, ordea. Biktimaren papeletik, aldiz, frustrazioa leundu dut nire burua aitzakiekin justifikatzeaz batera: Gajoa ni! Zer uste nian ba...? Eta txiki sentitu naiz. Bi kasuetan lorpena bilakatzen da sari gorena, prozesuaren plazera izuaren izerdi tantetan lurrunten den bitartean. Lortu badut banaiz, eta lortu ezean ez naiz. Erekonozitzen banaute banaiz, bestela... Kosta zait konturatzeko nola noraino bezain garrantzitsua dela, edo garrantzitsuagoa.

Euforiatik depresiora oso tarte txikia dago. Gipuzkoakoan, ozta-ozta igaro zut zortzi-erdi netako langa, eta azken asteetan tentsioan sumatu naiz, besteek zer egingo zain. Zuek onena ez naizela jabetzearen beldur nintzen. Zer onena? Onenen artean ere ez nagoela. Zer...? Bazenekiela...? Lasai Muñoa, honetatik ere ikasiko duk-eta. •

Unai Muñoa

# Labaka eta Etxeberria I. Udarregi Sariko finalean dira

Lasarte-Oriako Ane Labaka eta Patxi Etxeberri bertsolariak Udarregi Sariketako finalean kantatuko dute azaroaren 12an Agerialden. Usurbilgo Bota Punttuba Bertsu Eskolako antolatutako aurten lehenengo aldira Udarregi Sarira eta bertan bertsolari gazte eta zaharrak lehiari jarri ditu, kanporaketa batean sei bertsolari adindu, bestean sei gaztetxo eta bakoitzetik hiruk eskuratu du finaleko txartela.

Horrela, lehenengo kanporaketan eskarmentu handiko bertsolariak aritu ziren Santuenea auzoan Irailaren 18an, tuene eguerdian herri bertsobazkarian: Patxi Etxeberria, Martin Rezabal "Olaso", Oiartzabal, Rosi Lazkano, Luis Otamendi eta Koxme Lizaso.

Martin Rezabak "Olaso" 1991ko Gipuzkoako Bertsu Txapelketako finalean izan zen aiarra, Luis Otamendi, 1986ko txapelketa nagusian

nabarmendu eta Andoni Otamendi herriko bertsolariaren osaba den aiarra, eta Patxi Etxeberria, 1964 eta 1967ko Gipuzkoako txapelketetan 4. eta 3. izan zen herritarra sailkatu ziren finalerako.

Eta gero urriaren 13an bigarren finalerdia gazteek jokatu zuten Aginagako Eliza Zaharrean, San Praxiku jaien barruan. Ane Labakarekin batera, Eneritz Zabaleta, Maialen Velarde, Ainhoa Agi-

reazaldegia, Imanol Lizarazu "Habana" eta Aitzol Barandiaran bertsolariek hartu zuten parte eta azkenean, publikoak eta epaileek hala erabakita, Labaka, Velarde zumaiarra eta Barandiaran ataundarrak egin zuten aurrera.

## Finalistak

Beraz, aurten lehenengo aldira Usurbilgo Bota Punttuba Bertsu Eskolako antolatutako Udarregi Sariketako finalean, Aitzol

Barandiaran, Patxi Etxeberria, Ane Labaka, Luis Otamendi, Martin Rezabal "Olaso" eta Maialen Velarde kantatuko dute azaroaren 12an gauean.

Gai jartzaileak, Bota-Punttuba eskolako Imanol Arabalola "Txatxari" izango da eta aipagarri antolatzaileek gaiak proposatzeko aukera eskaini dutela, Bortatxo eta Txiriboga tabernetan jarri diren kaxetan edo botapunttuba@gmail.com helbide elektronikoan. •